



EIBARKO ONDASUN HIGIEZIN HIRITARREN LURZORUAREN ETA ERAIKINEN BALIO PONENTZIAREN ALDAKETA

SARRERA

2001eko abuztuaren 28an udalerriko Balio Ponentzia onartu zuen Diputatu Kontseiluak. Ponentzian oinarrituta, ondasun higiezin hiritarren balio katastralak lortu ziren, eta 2002ko urtarrilaren 1ean jarri ziren indarrean. Balio katastral berriak 2002ko urtarrilaren 1ean jarri ziren indarrean.

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak 12. artikuluan jasotzen duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak aldatuko ditu balio katastralak, ofizioz edo Udalak eskatuta, beti ere hirigintza antolamenduak edo beste edozein zirkunstantziak agerian uzten badu diferentzia nabarmenak daudela, alde batetik, balio katastral horien eta, bestetik, udalerrian nahiz bertako zonaren batean edo batzuetan kokatzen diren ondasun higiezin merkatuko balioen artean.

Balio ponentzia onartu denez geroztik, aldaketak izan dira udalerriko hirigintza antolaketan; gainera, lurzoruaren izaerari eta, beraz, aldaketa horiekin lotutako ondasunen merkatuko balioari eragin diete aldaketa horiek.

Horregatik guztiagatik, Azkoitiako lurzoruaren eta ondasun higiezin hiritarren lurzoruaren eta eraikinen balio ponentzia aldatu da.

XEDEA

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak, Ondasun Higiezin gaineko Zergari buruzkoak, 12. artikuluan xedatutakoaren arabera, udalerriko balio ponentzia aldatu da zirkunstantzia hauek direla medio:

1.- Aldaketak udalerriko hirigintza antolaketan:

- **Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak 208/07 errekurtsuari buruzko emandako epaia.** (2009ko apirilaren 17an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua).
- **Plan Partziala Erisono Lurzorua.** (2009ko otsailaren 23an Udalbatzak behin betiko onartua eta 2009/5/13an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua).



ALDAKETAK

Aipatu zirkunstantzien ondorioz, honela aldatuko da Balio Ponentzia:

- 1.- Hirilur lurraren muga aldatzen da.
- 2.- 222, 233, 235, 810 eta 856 zona katastralen mugak aldatzen dira.
- 3.- Honako zona hauek sortzen dira: 804, 808 eta 853 zona industrialak eta, 605 etxebizitzarako zona.
- 4.- Sortutako zonek honako balioak izando dituzte:

Zona Hirigintz. klasif (EK)Eraik Kos. (BEE)Balio Erag. (MP)Apark Moduloa.

605	HIRITARGARRIA	510,86	357,60	12.020,24
-----	---------------	--------	--------	-----------

Zona Hirigintz. klasif (BEI)Balio Erag (MP) Apark Moduloa

804	HIRILUR	225,38	6.010,12
-----	---------	--------	----------

808	HIRILUR	225,38	6.010,12
-----	---------	--------	----------

853	HIRITARGARRIA	225,38	6.010,12
-----	---------------	--------	----------

- 5.- I azpizona katastrala esleitu zaie 605 zona katastraleko kaleei edo tarte kaleei.

I. ERANSKINA

Hirilurraren mugatze planoak.

II. ERANSKINA

Zona katastralen planoak.